

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gimnasioetan erabiltzen diren **makinak ekoizten dituzten enpresekin** aliantzak egitea oso komenigarria da. Lankidetzaz horien bidez, behar ditugun makinaren hornikuntza ziurtatuko dugu eta, aldi berean, fabrikatzaileek eskaini dezaketen aholkularitza jasoko dugu. Haiek dira makinaren ezaugarriak eta funtzionamendua hoberen ezagutzen dituztenak; beraz, dispositiboa non eta nola kokatu erabakitzerakoan orientazio profesionala emango digute, erabilera eta segurtasuna optimizatzeko.

Era berean, **aplikazio-garatzailerekin** aliantzak egitea beharrezkoa da gure app-a sortzeko, eta etengabe hobetzeko. App-a gure zerbitzuaren gauza inportante bat izango denez, garatzailerekin, arazo teknikoen konponketa eta eguneratze jarraitua ziurtatuko dute. Horrela, erabiltzaileek esperientzia ezingarria izango dute.

Zerbitzuaren atzean egongo diren eduki profesionalak egiteko, **nutrizionistak eta entrenatzaile pertsonalak** izango ditugu gure taldean. Haiek arduratuko dira tabletak sortutako entrenamendu-planen atzean orientazioa emateaz, bezeroek izan ditzaketen zalantzak argituz. Bai entrenamenduari buruzko galderei erantzun diete, bai premium zerbitzua kontratatzen dutenen kasuan nutrizio eta dieta pertsonalizazioari lotutako galderei.

Bestalde, **gure sistemaren aplikazioa beste gimnasio batzuei ere proposatuko** diegu, haien instalazioetan txertatzeko aukera emanez. Neurri honek gure produktuaren ikusgarritasuna handituko du, eta merkatu-sarea zabaltzeko aukera emango digu.

Bukatzeko, aliantza estrategiko hauek baliabide tekniko eta profesional ugari eskuratzea ahalbidetuko digute. Horri esker, kostuak murriztu, eraginkortasuna handitu eta merkatuan presentzia sendoagoa lortu ahal izango dugu, gure zerbitzua lehiakorragoa eta erakargarriagoa eginez.

